

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA. GOBERNANTZA.
ORDAINKETA POLITIKA EZARTZEKO ERABAKI-PROZESUA.

KUTXABANK SA erakundeko estatutu sozialetan jasota dagoen moduan, eta Akziodunen Batzorde Nagusiari esleitutako atribuzioei kalterik egin gabe, Administrazio Kontseilua arrisku eta ordainketen arloko politika korporatiboen aplikazioa bermatu eta erabakitzeko organo goren da, bai sozietate matrizean, baita taldean ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudi esparruaren arabera eta sozietate bakoitzaren barne-politiken arabera, taldean indarrean dagoen esparru korporatiboarekin bateragarriak diren heinean.

Administrazio Kontseiluaren Batzordeen artean, Txosten honi dagokionez, Ordainketen Batzordea nabarmendu behar dugu, Administrazio Kontseiluari ordainketa arloko gaitan laguntzen dion organoa baita, Administrazio Kontseiluaren Araudiaren eta bere Araudi propioaren arabera. Horretan guztian, Erakundeak ezarritako ordainketa politika zaindu eta betetzen dela bermatzen du.

Administrazio Kontseiluaren estatutuen eta araudiaren arabera, Ordainketa Batzordea gutxienez hiru eta gehienez ere bost kidez osatua egongo da. Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu bere kideen artean, eta izaera exekutiboa ez duten kontseilarien artean izendatu behar dira. Gutxienez Batzordeko kideen herena, eta, edozein kasutan, Presidenteak, kontseilari independenteak izango dira.

Edonola ere, Administrazio Kontseiluak kontuan izango ditu Kontseilarien esperientzia, gaitasun eta ezagutzak, eta Batzordearen funtzioak, izendapenerako.

2021eko itxieran, KUTXABANK S.A.ren Ordainsarien Batzordea bost kontseilarik osatzen zuten, guztiak izaera ez-exekutiboarekin, hiru independenteak eta bi jabari-kontseilariak.

Administrazio Kontseiluaren araudiaren arabera, Ordainketa Batzordea bildu egingo da Administrazio Kontseiluak, Batzordeko Presidenteak, Kontseilari Koordinatzaileak edo gutxienez kideetako bik hala eskatzen duten bakoitzean. Bileretara sozietateko edozein pertsona joan ahal izango da, baita kanpokoa ere, Batzordeak berak egokitzen jotzen badu.

2021an, Ordainketa Batzordea 6 aldiz bildu zen.

Gainera, KUTXABANK SA erakundearen ordainketa politika orokorraren barne gobernantzaren oinarrian barne eta kanpo kontrolerako prozedura batzuk daude, hala nola

a) Barne-kontrolak, honakoaren bidez:

- Arriskuaren Kontrolerako Batzordea, Arrisku Kontrol Globalerako arloak babestua, ordainketa aldakorreko sistemen barruan estimatutako arrisku aldagaiei dagokienez, arrisku-joeraren esparruarekin nola lerrotatuta dauden kontuan izanda.
- Araudia Betearazteko arloak egon daitezkeen interes-gatazkak arintzeko neurrien kontrola eta ordainketa aldakorren onarpen eta komunikazio prozedurak betetzearen inguruko kontrola darama, bereziki ordainketa praktika eta politikei buruzko ESMA Zuzentzailearen arloan, 2013ko ekainaren 3koak, eta produktu-salmentarekin eta xehekako bankaren

zerbitzu-prestazioarekin erlazionatutako ordainketa politika eta praktikei buruzko EBA Zuzendarauen arloan, 2016ko abenduaren 12koak.

- Barne Auditoriako sailak, ordainsari-politikaren aplikaziotik independentea den barne-ebaluazioaren prozesuan laguntzen duenak, Kutxabank Taldearen mailan egindako Zuhurtzia-garrantziaren Txostenean argitaratutako informazioa eta araudira egokitzen dela egiaztatzen du, baita Gainbegiraleak egindako ad hoc eskakizunetatik eratorritakoa ere.

b) Kanpo-auditoreek eta autoritate ikuskatzaileek egindako kanpo-kontrolak

Gainera, Ordainketen arloko Batzordeak kanpo aholkulari independenteen txostenak ditu bere funtzioak burutzeko; esaterako, ordainketen politika korporatiboaren araudiaren lerrokatzea ebaluatzeko, J&A Garrigues S.L.P erakundearen laguntza izan zuen 2021an.